

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2023ko urtarrilak 20 · 1255 zenbakia



HERRIKO ERAIKINAK BERE ESKUETAN

MERKEALDIA

2MÓ 79€
LEHEN ~~99€~~

ERREFLEXUEN AURKAKO
BETAURREKO GRADUATUAK



8.85.91/20

Bidebarrieta, 2
943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua

www.multiópticas.com

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak



osasun gida

Dentistak

arat.
DENTISTAK GIDA GIDA

**ZURE
IRIBARRE
ONENA**



Toribio Etxeberria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 651
www.aratklinika.com

 **IRAZABAL**
clínica dental

**Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK**

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tfnua: 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Fisioterapeutak

 **ANE MENDIA**
979 kolegiatar dala.

- IRIBARRETERAPIA
- KIROL LESIOAK
- Puzazioa zera TRATAMENDUAK
- A-Stratela + OIVPESIBURAK

**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**

ARRAGUSTA, 20
T.F.: 943 53 06 42
ane_mendi@hotmail.com

Ginekologia

Dra. Laura  Dr. Alejandro
Martinez Recas

**GINECOLOGÍA
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetriziaz
- Ekografia 3D / 4D

Tel.: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

 **EIBAR** HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizentziatua
R.F.S. 22/B

San Agustín Kalea, 4 beheko ezkerria
20600 Eibar (Gipuzkoa)
943 537 076 - 688 884 808
info@eibarclinicadental.com

**MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN** ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702898

 **Unzaga Plaza**
Hortz Klinikak - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5, 4º I. Eibar
Tel.: 943 70 23 85

**Pedro Etxeberria Gisasola
DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnua: 943 20 72 17

 **GASTESI**
Hortz-Klinika

Errebal, 9-1. C
943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia



943-206776

Jarraitu gaitzazu!



Hegoi Estebanek Manu Agirreren tokia hartu du Kalamua Judo Taldearen buruan eta gogotsu ekin dio aro berriari, Agirre maixu handiak erakutsitakoaren bidetik.



Eibarko Pentsiodunen Taldeak bost urteko borroka ospatu nahi izan du aste honetako elkarretaratzean. Euria etenbarik botatzen ari zela eta, udaletxeko arkupeetan elkartu ziren astelehenean, pintxo, edari eta salda beroarekin mobilizazioen 5. urteurrena ospatzeko.



@etakitto



etakitto.eus

eta kitto!
euskara elkarteak

ARGITARATZAILEA
...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA
Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285

FAXA 943 20 28 72
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK
elkarte@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose
Luis Gorostegi, Silbia Hernandez
eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez

DISEINUA
Maku Oruezabal

MAKETAZIOA
...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA
Maider Aranberri

PUBLIZITATEA
Belen Ulazia

TELEFONOA
943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA
Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado

TIRADA
7.800 ale

INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A
...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarreak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Astean esanak



Nire liburuekin neskei lagundu nahi nien, gizonaek mutilekin egiten ez dutena. Lan horri ere nik ekin beharko diot. Kankailu hutsak dira, euren seme-alaben eta euren amen izenak gorputzean tatuatuzetik aparte, aita kaxkarrak izateari dioten beldurra berbalizatzen ez dakitenak. Gizonezkoen beldurrek azkenean gu beldurtzen gaituztelako. Feminismoa horregatik dut hain gogoko: gure bizitzak hobetzeko balio digulako. Politikan ere, orain arte aurrera egin duten emakumeek gizonaekoa balira jardun dute postu horiek lortzeko; askok gainera, patriarkatua hezita, misoginia hain dute barneratua... Erresuma Batuko gobernuan bertan ere badira beltzak eta asiarrak, baina guztiei igartzen zaie zelan ahalegintzen diren zuriak izaten.

CAITLIN MORAN, idazle feminista

Aurreikuspenak egiten dituzten ikerketek esaten dute Afrikako populazioa bikoiztu egingo dela 30 urte barru, eta munduko hiri jendetsuenak Dar es Salaam, Lagos eta Kinshasa izan daitezkeela. Afrikar emakumeek lau seme-alaba baino gehiago izaten dituzte batez beste (Euskadin 1,2 eta jaisten ari da). Afrikar populazioaren %40ak 20 urte baino gutxiago ditu. Ekonomia hazten ari da kontinente horretan, baina desberdintasunak izugarriak dira. Horregatik, immigrazio mugimenduak oso handiak dira Afrika barruan; hala ere, ez da lanik egongo afrikar gazte guztientzat, eta askok migratu egin beharko dute. Populazio zaharkitua izango duen Europara etorriko dira gehien-gehienak.

IÑIGO LAMARCA, Arartekoa izandakoa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ONDUAN → Hurbil, alboan. “Jarri zaitte nere onduan”.
Konparazioetarako. “Hire onduan txikixa dok ha”.

ONDO BAIÑO HOBETO → Ederto, oso ondo, bikain. “Ondo baiño hobeto bizi naiz, erretirua hartu nebanetik”.

1933

Zerbitzarien arteko antxixiketa-jokoa

Ramon Prieto eta bere lagun bat Errepublikaren Plazan, San Juan jaietan antolatu zen zerbitzarien antxixiketa-jokoa. Beste batzuen artean, "Canapero", A. Prieto, Alberdi, R.Padilla eta Antonio Prieto ere hortxe agertzen dira. Castrillo Ortuoste Fondoa. Eibarko Udal Artxiboa.



Farmaziak

BARIXAKUA 20
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ZAPATUA 21
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
DOMEKA 22
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
ASTELEHENA 23
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
MARTITZENA 24
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUAZTENA 25
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
EGUENA 26
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
BARIXAKUA 27
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)

GAUEZ BETI, 2023an,
Castaño (J. Etxebarria, 7)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Jose Luis Laskurain Narbaiza**. 90 urte. 2023-01-12.
- **Flora Iglesias Paz**. 86 urte. 2023-01-14.
- **Maria Luisa Monje Goñi**. 97 urte. 2023-01-14.
- **Marcelina Revuelta Mantecon**. 87 urte. 2023-01-15.
- **Maria Pilar Subinas Elorza**. 96 urte. 2023-01-16.
- **Maria Etxaniz Larrea**. 92 urte. 2023-01-16.
- **Sagrario Atxaorbea Arroitaonandia**. 82 urte. 2023-01-17.
- **Maruja Valdespino Marcos**. 79 urte. 2023-01-17.

Jaiotakoak

- **Unai Azpeitia Barandika**. 2023-01-11.
- **Amir Atton Bouzyani**. 2023-01-11.



Larrialdietarako 691 gizarte-laguntza, 621.851 euro, eman zituen iaz Udalak

Udaleko Gizartekintza Sailak 691 eskaera onartu zituen 2022an Gizarte Larrialdietarako Laguntzetarako (GLL), 621.851 euro horretarako bideratuz. “Kopurua —bai laguntzen eskabideei, bai emandako zenbateko osoari dagokionez— pixka bat igo da 2021eko datuekin alderatuta; izan ere, orduan 666 eskabidea onartu ziren eta emandako laguntzen diru-kopurua 586.963 eurokoa izan zen”, azaldu dute Gizartekintza Sailetik.

Iaz emandako 621.851 euroetatik, 589.069 euro Eusko Jaurlaritzak eman zituen, hura baita arlo horretan eskumena duen eta

laguntza horien ardura duen erakundea; eta gainerako 32.782 euroak, berriz, Udalak jarri zituen, hari dagokio-eta laguntza horiek kudeatzea eta osatzea Eusko Jaurlaritzak hasieran bideratutako kopuruak nahikoak ez direnean.

Iaz emandako GLLen 691 laguntzetatik 248 (%36), 156.692 euroko zenbatekoarekin, mantze-gastuetarako izan ziren; beste 248 (%36) kontsumo energetikoaren gastuetarako eta, xede horretarako, 148.544 euro eman ziren. Alokairurako 97 laguntza banatu ziren, guztizkoaren %14 (191.612 euro).

Hondamendiaren 3. urteurrena gogoratuko da Eitzagan otsailaren 5ean

Zaldibarko hondamenditik hiru urte betetzear direla eta, Zaldibar Argituk antolatuta ekitaldia egingo da otsailaren 5ean Eitzagan, 12:30ean hasita. Besteak beste txalapartariak, dantzariak eta Lucio Alonso musikoa egongo dira bertan parte hartzen.



Bilboko manifestaziora joateko autobusa antolatu du Debabarreneko GKS-k

Urtarrilaren 28an Gazte Koordinadora Sozialistak (GKS) manifestazioak egingo ditu Bilbon eta Iruñean, “Enpresari eta agintarien erasoaldiaren aurrean, gazte langileok borrokara” goiburuari jarraituta. Diotenez, “kapitalismoan krisi sakona bizitzen ari gara, eta agerikoa da gazte langileon bizi baldintzak gero eta okerragoak direla, bai zentzu ekonomiko zein politikoan: lan baldintza prekarioak, diru laguntzekiko dependentzia, aisialdiaz gozatzeko ezintasuna, bortizkeriaren gorakada, kriminalizazioa... Mobilizazio bategen ez du enpresariaren erasoaldia geldituko, baina gazteon arteko antolakuntza eta borrokarako grina hedatzeko erabili behar dugu, baita enpresari eta politikari profesionalen eraginetik kanpo antolatzen jarraitzeko bitartekoak hedatu ere”. Debabarreneko GKS-k autobusa antolatu du Bilboko manifestaziora joateko eta Buenos Aires tabernan jarri dituzte salgai tiketak, 3 eurotan.



Kaleak zuriz jantzita topatu genituen eguazten goizean

Eibarko kaleak zuri-zuri zeudela esnatu ginen eguaztenean, gauean botatako elurraren eta txingorraren ondorioz. Egun osoan zehar, bestalde, ekaitzak izan ziren nagusi eta temperatura maximoak ez ziren 6°-tik gora igo, eta atzo eta gaur ere ez da aldaketa nabarmenik igerri. Eguraldiaren iragarpenei jarraituta, Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak alerta-egoera ezarri zuen martitzenean eta, horren aurrean, Eibarko Udalak ere herritarren segurtasunerako protokoloa jarri zuen martxan, euriarengatik eta elurrarengatik.





2023ko udal aurrekontuaren zirriborroa aurkeztu dute

Jon Iraola alkateak eta Ana Telleria Ogasun zinegotziak Udalararen 2023ko aurrekontuaren zirriborroa aurkeztu zuten aurreko astean. Udal Gobernuaren proposamenaren 45,8 milioi euroko aurrekontua zehazten da, iaz baino 2,6 milioi gehiago (%6), eta azken bi urteetan gauzatu barik geratu ziren proiektuak aurrera eramatea da helburu nagusia. Oposizioko alderdiek abenduaren 21ean jaso zuten proposamena eta zuzenketak egiteko edo adostasunak lortzeko sasoia da orain.

Iraolak eta Telleriak esandakoaren arabera, 2023a oso urte garrantzitsua izango da hirigintzari dagokionez. Horrela, 6,72 milioi euroko partida bideratuko dute hirigunea hobetzeko, sarbideetarako eta eraikinen egokitzea egiteko. Besteak beste, Torrekuako ambulatorioa jubilatuen-etxe bihurtzeko lanak egitea aurreikusten dute, Barakaldo kalean Estaziño eta Azi-

tain artean egin nahi duten pasealekuarekin lotzeko igogailua eraiki nahi dute, eta ambulatorioaren eta Julian Etxebarria kalearen inguruak berrurbanizatu nahi dituzte. Azken lan horren bitartez, gainera, autoek kontrako norabidea hartuko dute Julian Etxebarria kalean (gaur egunekoarekin alderatuz) eta, horrela, asteburuetan beste aukera bat emango diete autoei Donostiako norabidea har dezaten.

Inbertsioen atalari dagokionez, Arragueta kaleko 16. zenbakia erosteko asmoa dutela esan dute. “Hutsik dago eta hondamendi egoeran. Beraz, eraikina botatzea, espazioa egitea eta Bidebarrieta kalearekin lotzeko pasabidea egitea da asmoa”, Iraolaren berbetan. Bestetik, Ego Gain kaleko eraikin berrian lokal bat erosteko nahia ere agertu dute, bertan “ganorazko autobus geltokia egiteko”, komunekin, kontsignekin, autobusak itxaroteko bankuekin, eta abar.



Alkoholiko Anonimoen bilera irekia egingo da bihar arratsaldean

Al-Anon Familia Taldeak 45 urte betetzen ditu aurten eta, hori aprobetxatuz, alkoholikoen senitarte-koentzat eta laguntzat sortutako elkarteak bilera berezia egingo du zapatu honetan, hilaren 21ean, arratsaldeko 18:00etan hasita, San Andres parroko lokaletan. Deialdia irekia da eta interesatuta dauden guztiak gonbidatu nahi dituzte. Al-Anon eta Alateen taldeetako kideak gaixoen senideak, lagunak eta lankideak dira eta esperientziak partekatzen dituzte: “Berdin da ondoan duten gaixo alkoholikoak edateari uztea lortu duen edo ez, edo alkoholarekin arazoa duela onartzen duen”.



Mihi-Luzeko lehiakide berriak eibartarrak dira

Maddi eta Peru Alberdi anai-arreba eibartarrak dira Mihi-Luzeko lehiakide berriak. Martitzenean egin zuten estreinaldia euskara eta umorea ardatz dituen ETB-1eko saioan eta primeran aritu ziren. Zorterik onena opa dizuegu!



Olagarro solidarioen tailerra egingo dute bihar Ipuruako Merkatu Plazan

Bihar kotoizko olagarroak egiten ikasteko tailerra egingo dute Ipuruako Merkatu Plazan. Noupops elkarteko Cristina Peredak gidatuko du olagarro solidarioen ikastaroa, 16:30etik 18:30era. Parte hartzeko beharrezkoa da gantxi-lloari edo kakorrazari buruzko oinarritzko ezagutzak izatea. Plazak mugatuak dira, eta interesa dutenek 647 622 949 telefono zenbakira deitu beharko dute aldezturik. Izen-emateak 5 euro balio du. Tailer-rean egingo diren olagarroak haur goiztiarrei emateko izango dira.



Debarreneko eskaintza turistikoa eraman dute Fitur nazioarteko azokara

Debarrena eskualdea Madrilgo Fitur Nazioarteko Turismo Azokan parte hartzen ari da aurten ere. Azoka eguaztenean hasi zen eta domekara arte egongo da martxan. Edizio honetan, Euskadiko standaren barruan, Euskal Kostaldearen txokoan, Debarreneko erakargarritasunen berri emango zaie bisitariei: proposamen turistikoa desberdinen gaineko informazioa, eskualdeko herriei buruzkoa, betiere Debarreneko baliabide turistikoa nagusie-

na azpimarratuz: Mutrikuk, Debak (Debarrena) eta Zumaiak (Urola Kosta) osatzen duten Euskal Kostaldeko UNESCO Geoparkea. Horrez gain, ibilbideen mapa berria eraman dute azokara. Mapa horrek aukera zabala eskaintzen du mendian egiten diren ibilaldi eta zeharbideetan, kostako begiratoki ikusgarrietan eta interes geologikoko eta kulturalako guneetan. Debarrena Turismoren webgunean eta Wikilock kontuan dago eskuragarri.

688 62 76 89
ESKERTZAK ETA
URTEURRENAK
943 20 09 18

Urkizu, 11 - SOLIBARRITA
 publizitatea@etakitto.eus

FUNEUSKADI Grupo Asintea	FUNERARIA MUGICA Funerariak
TANATORIO EIBAR	TANATORIO CREMATOPIO ELGOIBAR
24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951 www.funeuskadi.com	
Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixilon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16
Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao	

Aurrera beti, pentsio publiko eta duinak lortu arte

Eibarko Pentsiodunen Taldeak bost urteko borroka ospatu zuen astelehenero elkarretaratzean. Euria etenbarik botatzen ari zela eta, udaletxeko arkupeetan elkartu ziren, pintxo, edari eta salda beroa hartzeko. Astelehenero 120 bat lagun batzen dira Eibarren, Untzagan egin ohi diren kontzentrazioetan. Urteotako borrokari esker hainbat lorpen eskuratu dituztela eta pozik daude, baina, aurrera begira, oraindik ere pentsio duin eta publikoen alde borrokatzen jarraituko dutela nabarmendu dute.



Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak (EHPM) 2018ko urtarrilaren 15ean mobilizazioen hasieraren bosgarren urteurrena ospatzeko antolatutako ekimenen berri eman zuen aurreko astean Bilbon, Kafe Antzokian egindako prentsaurrekoan. Komunikabide asko bildu zituen ekitaldiak eta, gainera, ehun bat pentsiodun batu ziren, gehienak Bizkaikoak, baina baita Araba, Gipuzkoa eta Nafarroakoak ere. Ageraldian urteurrenaren harira kaleratu duten manifestuaren laburpena egin zuten mugimenduaren ordezkariak. Manifestu horretan mobilizazioaren bost urte hauetako ibilbidea, lorpenak eta aldarrikapenenetatik lortzeke direnak jaso dituzte eta, azpimarratu zuten, “gure protesta eta mobilizazioekin jarraituko dugu, pentsio publiko eta duinak lortu arte, batez ere 1.080 euroko gutxieneko pentsioa”.

Izan ere, argi laga nahi dute EHPM-ren erronka nagusia pentsio duinen borrokan jarraitzea dela: “Gizarte-sektore zabalak mobilizatu behar ditugu, 2020ko urtarrilaren 30ean egin genuen bezala, baina, batez ere, baldintzarik gabeko laguntza eskaini behar diegu langileei eta gazteei. Pentsiodunak eta langileak kate bereko bi kate-maila gara”.



Astelehenetan Untzagan egiten dituzten elkarretaratzeetan 120 eta 150 lagun inguru elkartzen dira astero. SILBIAHERNANDEZ

Hala ere, asteleheneko elkarretaratzeetan bildutakoek bazuten zer ospatu: “Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak lortutakoa ospatzen dugu: 2013ko PPre reformaren PEIa (0,25) indargabetu dugu. Pentsioen Sistema Publikoa guztiz bideragarria dela frogatu dugu, estatuak bere gain hartzen baditu Gizarte Segurantzari dagozkion kudeaketan sartu arren, Estatuko Aurrekontu Orokorrekin ordaintzekoak direnak. Iraunkortasun Faktorea indargabetu da, eta gure pentsioak erdira murriztu nahi zituzten erabaki berriak hartzea saihestu dugu”.

Eta lorpen horiek borrokari zor dizkietela ere oso garbi daukate: “2018an plazetara atera ez bagina, 2017ko 700 euroko pentsioa 710,60 eurokoa izango litzateke 2023an, eta mila eurokoa 1.015,1 eurokoa. Hori da bost urtetako iguera! EHPM harro dago euria egin zein eguzkia egin, 230 astelehen geroago kalean jarraitzen dugulako, gure pentsioen alde eta atzetik datozen belaunaldietako pentsio publiko duin, justu eta nahikoen alde borrokatzen”.

Eta norbaitek zalantzarik balu, zenbakiei begiratu eta berehala konturatuko da pentsiodunak ez direla geldirik egon bost urte

Bost urte eta gero, pentsiodunen mugimenduak berarentzat propio sortutako kantua dauka, Xabier Amurizaren hitzekin

hauetan: 5 urte, 60 hilabete, 261 aste; 230 asteleheneko elkarretaratze, 85 herri baino gehiagotan eta lau euskal hiriburuetan; 18.000 kontzentrazio inguru lirateke herri eta hiriburu guztiak batuz gero.

Kantua eta aldizkari monografikoa

Bosgarren urteurrena dela eta, kartel berezia eta pentsiodunen borrokari eskainitako aldizkari berezia kaleratu dute. Eta, hori gutxi balitz, kantua ere egin diote: “Pensionistak Aurrera!”. Abestiari hitzak Xabier Amurizak idatzi dizkio eta musika Modus Operandi taldearena da. Bideoklipa, berriz, bost urte hauetan Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan eta herri askotan egindako mobilizazio garrantzitsuenen ikus-entzunezko muntaia batekin egin dute.



Bideoa ikusgai gure
YouTube kanalean



Borrokari esker lortu dutenarekin pozik egon arren, ez dira geratuko eskatzen duten guztia lortu arte



Asteroko aldarrikapenek pintxo batzuk jan eta zerbait edateko tarteari tokia egin zioten astelehenean. SILBIA

Pentsiodunen borrokari esker lortu dutenarekin pozik agertu da, baita ere, Eibarko Pentsionista Taldeko Emilio Aiastui: “Guk oso balorazio positiboa egiten dugu. Alde batetik, gauza batzuk lortu ditugu. Igual gauza handirik ez, baina azken batean uste dut garrantzitsuena izan dela 0,25 hori pikutara bidaltzea. Gero badago beste kontu bat, guk ‘factor de sostenibilidad’ deitzen dioguna. Zapatero presidente izan zeneko garaian onartu zen, eta une honetan behintzat baztertuta dago. Lortu ditugun gauza guztien artean, nerretzat garrantzitsuena da pentsioak lotuta egotea lortu dugula. Hau da, estatuko aurrekontu orokorretan sartuta dago eta, beraz, une honetan, KPI-aren araberako %8,5-ko igoera hori bertan sartuta, lotuta dago”.

Hala ere, aurrera begira mobilizazioekin jarraitu beharra dagoela uste du: “Guk oso argi daukagu lortu duguna mobilizazioei esker dela. Orduan, bidea hori da. Hemendik aurrera ere helburu nagusia mobilizazioa izango da”. Eta horretarako ere hamaika arrazoi daudela pentsatzen dute: “Onartezina da geroz eta pentsiodun gehiagok oinarrizko premiak betetzeko arazoak izatea, hala nola etxe erosoak, osasunerako eskubidea, elikadura osasuntsua eta erretiroaren ondoren diru-sarrera duinak eta nahikoak izatea. Soldaten eta pentsioen genero-arrakalarekin amaitu egin behar da, emakumeei pentsio duina jasotzeko eskubidea aitortuz, alargun pentsioa ezkontidearen oinarri arautzailearen %100era handituta. Murrizketen erreformak indargabetzea (2011, 2013, 2021). Gutxieneko pentsioak sintonian batez besteko soldataren %60-ko LGS-rekin. 1.080 euroko gutxieneko pentsioa orain!”.



Untzaga plazako musika kiosko berria gerra aurretik, 1932an. INDALECIO OJANGUREN FUNTSA.

Primo de Riveraren diktadura. Gerra aurreko Eibar, herri erabat euskalduna; horren inguruko aipamenak. Doktrina euskaraz ikasten zuten. Euskararen, euskalkien inguruko aipamenak. On Juan Ibartutxi abadea.

Gerra aurreko Eibar, herri guztiz euskalduna

Juan San Martin Ortiz de Zarate Otsalar
(1922 – 2005)



1922ko ekainaren 23an jaio zen Eibarren, San Juan bezperan. Jaio eta hurrengo egunean, Primo de Rivera-ren diktadura ezarri zen. Gerra Zibila irten zenean, Juanitok 14 urte zituen. Gazte-gaztetatik irakurtzeko zaletasun handia izan du. Euskalduna eta euskaltzalea. Toribio Etxebarriak eragin handia izan zuen Juanitoren pentsakeran. Euskaltzain osoa, Ararteko ere izandakoa, kulturaren arlo desberdinetan gogor lan egin zuen bizi guztian zehar, eta emaitza aldetik gizon oparoa izan da.

Juan San Martini grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

(...) [Eibar oso-oso euskalduna izan da]. Bai. Berez zen euskalduna. Eibar, zalantzarik gabe, 1936. urtian, Euskal Herriko hiri nagusia zen... Hau da, hiri nagusietan euskera hutsa egiten zen bakarra izango zen. Ez zegoan hainbeste biztanle zituan herri bat... E? 15.000 biztanle eta 15.000ak euskaldunak. [Eta kanpotik etorritakoak eta denak]. Bai, bai, bai, bai! Kanpotik etortzen zenak ez zeukan beste erremediorik ikasi baiño! Lehenago edo geruago! Eta batzuk nik ezagutu ditut, nik zaharrak ezagutu ditut Eibarren, ba, erdera ahaztu ere bai eta erdera gaizki egiten zutenak: hainbeste euskera beti egiten, beti egiten, ba, erdera moteldu. Gurekin mendian ibileretan, bueno, bat `Camarro´ deitzen geniona zan, Molinero zeukan deitura. Baiña `Camarro´. Harek erderaz desastria egiten zuan eta Guadalajaratik etorria zen. Baiña Eibarren beti euskeraz, euskeraz, euskeraz, ba...(...)



Gutxitan ikusten den erakargarritasuna. AITZOLARRILAGA



MIKEL ARRILLAGA

Egia gutxi eta...

El Diario Vascoren bertsiu digitalean irakurri nuen. Albistearen arabera, poliziak emakume bat atxilotu zuen Lanbideri 15.000 euroko iruzurra egitearren. Emakumea Eibarren erroldatuta zegoen eta adin txikiko semearekin bizi zela esaten zuen diru-laguntzak jaso ahal izateko, nahiz eta bera Frantzia bizi eta semea Andaluzian aitarekin. Xehetasun gehiago ere ematen zituen berriak, besteak beste, garbi uzten zuen atxilotuaren jatorri marokoarra.

Deigarria da tonu bereko zenbat albiste agertzen diren tarteka-marteka, denok dakigunean hutsaren hurrengo direla Lanbideri egindako balizko iruzurrak. Hori ez diot nik. Idoia Mendiak berak azaldu zuenez, 2022an 50.000 lagunek jaso zituzten laguntzak, eta horien artean susmagarriak 224 ziren; hau da, %0,45.

Salbuespenak xehe kontatzen dizkigute, beraz, baina zuzen dabilen gainerako %99,55aren gurutze biderik inoiz ez, eta badago zer kontaktua. Errola-agiria eskuratzea izaten da lehenengo zeregina, hura gabe ez baitute ezertarako esku-biderik. Hala ere, agiria lortzea ia ezinezko jartzen diete gizarte-zerbitzuek eta prozesu luzea izaten da. Behin erroldatuta daudenean, hiru hilabete itxaron behar izaten dute Osakidetzako txartela jasotzeko, eta sei hilabete larrialdi sozialeko laguntzak eskatu ahal izateko. Horiek desberdinak dira herri guztietan; Ermuan, esaterako, 250 euro tokatzen dira: 100 gela bat ordaintzeko, eta 150 arropa edo janaria erosteko... Kontua da diru-laguntza eskatu eta jaso bitartean zazpi-zortzi hilabete pasa daitezkeela: Urtarrilean eskatu, apirilean onartu, eta agian irailean kobratzen hasi. Hori bai, eskatzen dutenetik sei hilabetera gastu guztiak justifikatzera behartzen dituzte. Bai, ongi ulertu duzue: tiketen bidez, justifikatu egin behar dute, jaso ez duten dirua non gastatu duten! Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI) famatua eskatzeko, hiru urtez egon behar dute erroldatuta, eta urte horietan guztietan ezin dute inolako lanik egin; beste era batera esanda, behartuta daude beltzean jardutera, erdi esklabotzan, alegia. Horrelaxe dihardute, besteak beste, Hego eta Erdialdeko Amerikatik etorritako horrenbeste emakumek; gure nagusiak zaintzen dituzte baldintza negargarrietan. Iritsi berri askok heziketari eskaintzen dizkiete urte horiek: espainiera ikasi, lanbide heziketako zikloren bat... eta jakina; biziraun.

Etorkinen gurutze bideak aurrera jarraitzen du, lan baimena eta, azkenik, herritartasuna lortu arte. Oso konplikatuak horiek ere. Ni, berriz, bidegurutze honetan jaitsiko naiz oso luze joko bailuke hori azaltzeak, eta zoritxarrez, hedabideetan %0,45en ekintzak dira albiste, aurreiritzi arrazisten alpiste.

Bukatzeko, zorionak eta mila esker etorkinei harrera egiten ari zaretenoi; mi-resgarria, benetan! Hori da burokraziaren sasi artetik loreak ateratzea.

“Etorkinen gurutze bideak aurrera jarraitzen du, lan baimena eta, azkenik, herritartasuna lortu arte”

“Nerbioak baretzeko oso ariketa ona da maketak egitea”

MANUEL ZABALA • Maketagilea



Manuel Zabalak Eibarko eraikinen maketen bigarren erakusketa jarri du ikusgai Armagintzaren Museoa. Bertan herriak izan dituen egitura arkitektoniko nagusienak ikusi daitezke, batzuk dagoeneko desagertuta daudenak eta beste batzuk hondamendi egoeran.

Artea eta arkitektura Eibarren II izenburua duen erakusketa otsailaren 19ra arte egongo da ikusgai Armagintza Museoaren sarreran, eguaztenetik zapatara 16:00etatik 20:00etara eta domeketan 10:00etatik 13:00etara. Sarrera, gainera, doakoa da.

Eibarko eraikinen maketekin egiten duzun bigarren erakusketa da hau. Bestearen jarraipena da? Osagarria? Beste ezaugarri batzuk ditu?

Erakusketa honetan batipat azken 12 urteotan egindako maketak daude ikusgai. Badago aurreko erakusketan erakutsitako maketaren bat (Estaziño zaharra, adibidez) eta antzina egindakoren bat ere (Arrateko eliza, kasu). Hori bai, beste erakusketan gertatu zen bezala, Eibarko eraikinak dira denak.

Noiz hasi zinen eraikinen maketak egiten?

Eraikin baten lehenengo maketa Martuteneko txalet batena izan zen. Bertan Moulinexeko erosketa-ardura-duna bizi zen eta harremana nuen berarekin. Maketak egiten nituela jakin zuen eta bere etxea egiteko esan

zidan. Ondoren, lagun baten baserriaren maketa egin nuen, gero beste bat, eta horrela gaur egunera arte.

Orain dela asko egin zenuen lehen maketa hura?

Orain dela 52 urte.

Eta Eibarko eraikin baten lehenengo maketa zein izan zen?

Ez dago erakusketa honetan, baina Arrajola baserria izan zen. Gero, gaur egungo Otaola hiribidean zegoen Otaolaerdi baserria egin nuen. Ondoren, Estaziño kaleko tren geltokia, eta horrela.

Trebetasuna eta jakituria behar da horrelakoak egiteko. Maketak lehen saiakeran sortzen zenituen ala askotan saiatu behar zinen?

Lehen saiakeran irtetzen zitzaizkidan, poliki-poliki eginez. Egia da batzuetan, lanetik amorratuta heltzen nintzenez, gauzak ez bazitzaizkidan nahi bezala irtetzen, haserretu eta ‘pum’, egindakoa apurtzen nuela eta berriz hasten nintzela (barreak).

Nondik datorkizu maketak egiteko zaletasuna?

Gaztetan Ferrolgo Marinara joan nintzen eta Donostiko ebanista bat zegoen bertan. Denbora librean



zer egin pentsatzen ibili nintzen eta maketak egitea gustatzen zitzaizkiola esan zidan berak. Orduan, gure kuartelaren parean ‘Galatea’ izeneko itsasontzi bat zegoen eta horren maketa egin genuen. Maketa Eibarrera ekarri nuen, etxean egon zen ez dakit zenbat urtetan eta gero elkarte gastronomikora eraman nuen. Gaur egun erdi apurtuta dago. Bestetik, gure bulegoa Untzaga dorrean zegoen eta Sanjuanetan botatzen zituzten txapligoen makilak terrazara erortzen ziren. Orduan, denak batu eta mendiko bordak egin nituen, gero leihoak eta atea egin nizkien, eta ondoren eraikin handiagoak egiten hasi nintzen.

Eraikinen xehetasun guztiak zaintzen dituzu, eta baita proportzioak ere. Nolabaiteko formakuntza jaso duzu edo zeure kabuz ikasi duzu hori egiten?

Gauza hauek bakarrik etortzen dira. Maketaren zati bat egin behar badut, nola egin dezakedan pentsatzen dut, beste barik. Buruari buelta asko eman eta zerbait bururatzen zait. Gero, eraikinen tamainari eta proportzioei dagokienez, gutxi gorabeherako kalkuluak egiten ditut, ez baititut eraikinen planoak. Adibidez,

Sagartegieta, jauregiaren maketa sortzeko, bi argazki hartu eta horren arabera egin dut. Maketa egin aurretik marraztu egiten dut paperean, baina beste barik. **Erakusketan dauden eraikin batzuk dagoeneko ez dira existitzen. Nola moldatu zara euren maketa egiteko?** Antzinako argazkiak eta bestelako irudien bitartez, eta gogoratzen nuena ekarriz. Oraindik zutik daudenekin errazagoa da, bertara joan eta nolakoak diren ikusi dezakedalako.

Afizio polita zurea!

Bai, oso polita! Denbora pasatzeko oso ondo dago eta egunerokoan pilatzen diren nerbioak baretzeko oso ariketa ona da.

Ba nerbioekin egiteko oso gauza delikatua da, ezta?

Bai, kontuz egin beharreko zerbait da. Baina tira, nik esku handi hauekin horrelako maketak egitea lortu badut, ez da hainbesteko izango (barreak).

Zein eraikin ikusi daiteke erakusketan?

Aipatutakoez gain, Sosola baserria, Isasi txaleta, Orbeako bulego-eraikina, Jardinetako eskola-zaharrak, Estaziño zaharra eta berria, Arieletxea, Aritxulueta

baserria, Kantabria jatetxe zaharra, Bildosola txaleta, Otola baserria, Arbitrios, Pitzargain baserria, Errebalgo merkatu plaza zaharra eta San Andres parrokia daude (egin dudan azken maketa), besteak beste. Ikusi daiteke, adibidez, Arrateko eliza aspaldi egindakoa dela, bernizatuta ere ez dagoelako.

Hasi zinenetik gaur egunera arte aldea igarri duzu zure sorkuntzetan?

Bai, noski, ez dago alderik! Maketak egiten zoazen neurrian eskua hartzen diozu, teknika hobetzen duzu eta, orokorrean, dena egiten duzu hobeto.

Nola lortzen duzu maketak egiteko materiala?

Material ezberdinak erabiltzen ditut. Adibidez, zerrautsarekin egindako lamina handi batzuk erabiltzen ditut, barandak egiteko txanpain botilen alanbreak erabiltzen ditut, zotzak ere, sareak, paretak paperez-tatzekoak, Gastro Gilda tabernakoek zakarrontzira bota behar zuten lamina batzuk eman zizkidaten... Adi egoten naiz maketentzako baliagarriak izan daitezkeen gauzak hartu eta berrerabiltzeko. Gero, gainera, eraikinak margotu eta bernizatu egiten ditut.

Non egiten dituzu maketak?

Bulego bat daukat eta, bertan sotoa dagoenez, han sartzen naiz eta orduak pasatzen ditut. Maketa batekin hasten banaiz, amaitu arte jarraitzen dut horrekin. Bestela, batekin hasi eta amaitu baino lehen beste batekin hasten banaiz, akabo. Hori bai, ez dakit zenbat tardatzen dudan maketak egiten, inoiz ez dut apuntatu. Ez dut presarik edukitzen, gogoaren arabera egiten dut, baina amaitzear nagoenean bai sakatzen dut behingoz amaitzeko, gogoia izaten baitut emaitza ikusteko.

Zein da zure sorkuntzarik kuttunena?

Jardiñetako eskola zaharren maketa aukeratuko nuke. Izan ere, bertan ikasi nuen eta maitasun berezia diot. Ondo gogoratzen dut nolako eraikina zen. Alde batean neskak egoten ziren eta bestean mutilak.

Eta zein kostatu zaizu asko egitea?

Badaude batzuk (barreak), baina Jardiñetako eskola zaharrak egitea, adibidez, nahiko kostatu zitzaidan.



“Maketa batekin hasten banaiz, amaitu arte jarraitzen dut horrekin”

“Desagertutako eraikinen maketak egiteko argazkietan oinarritzen naiz”

Gabonen ostean berriz hasi dira elkartzten berbalagunak

Atsedenaldi labur baten ondoren, hasi dira mingaina dantzatzeko Eibarko berbalagunak. Astean behin ordubete, horixe da Berbetan programak euskara praktikatzeko eskaintzen dien aukera, giro natural eta informalaz lagunduta. Euren inguruan euskaldunik izan ez eta ikasitako euskara berreskuratu edo praktikatu nahi dutenentzat programa aproposa dela diote ...eta kitto!-tik: “Ez familian, ez lagun artean, ez lanean... euskara norekin praktikatu ez dutenentzat aukera polita da. Giro lasaian, taberna batean adibidez, eta euskaldunez lagunduta, euskaraz lasai hitz egiteko aukera ematen die Berbetanek”. Eta astean behineko taldeekin nahikoa ez dutenentzat, “ekintza osagarriak ere antolatzen ditugu urtean zehar; udazkenean Mutrikun izan ginen eta martxoan Balmasedako La Encartada Txapel fabrika-museoa bisitatuko dugu.



Horrelako ekintzek berbalagunen euskal harreman-sarea zabaltzen laguntzen dute; azken batean, talde ezberdinetako berbalagunek elkar ezagutzen dute, eta euskarazko harremanak izateko aukerak handitzen zaizkie”.

Urte osoan eman daiteke izena eta doan da. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 943200918 telefonora edo idatzi elkarte@etakitto.eus helbidera.



Torrekuak hartuko ditu gaur Barixakuak Jolasianeko jolasak

Joan den astean Txaltxa Zelaiko harmailek hartu zituzten Barixakuak Jolasianeko urteko lehenengo jolasak, eta gaur Torrekuako parkearen txanda izango da. Lau begiralaren laguntzarekin ordubete dibertigarria pasako dute Torrekuara gerturatzen diren umeez, 17:00etan hasita 18:00ak arte. Euria egingo balu anbulatorio zaharraren aterpe azpian egingo lirateke jolasak. 2 eta 8 urte bitarteko umeez har dezakete parte, eta hurrengo barixakuan Urkizuko parkean egingo dira jolasak.

Antxiñe Mendizabal izan da Harixa Emoten saioan



Urtarrileko euskarazko irakurketa taldean jardun du aste honetan Antxiñe Mendizabal idazleak (Zumarraga, 1968), *Odolekoak* liburua irakurri baitute tertuliakideek. 1941ean hasi eta oraintsu arte, Iruñeko familia baten historia kontatzen digu nobelak, hiru belaunalditan zehar, hiru emakumeren bitartez, baina, batez ere, ama-alaba harremanei buruzko kontakizun sakon, gogor eta hunkigarria da Antxiñek liburu honetan eskaintzen diguna. Hurrengo saioa otsailean izango da; Miren Agur Meaberen “Begiak zerumugan” liburua irakurri eta landuko dute literatur tertulian idazlearekin batera.

“Erretzen taldean hasten bagara, zergatik ez laga taldean?”

LAURA MONGELOS, “Minbiziaren auka Gipuzkoan” elkarteko psikologoa



Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkarteak tabakoa alde batera laga nahi dutenentzako laguntza espezializatua eskainiko du laster Eibarren. Zerbitzua doakoa izango da eta bertan parte hartzeko edo informazio gehiago eskuratzeko 943202494 telefono zenbakira deitu daiteke.

Noiz eta non izango dira erretzeari lagatzeko saioak gure herrian?

Ardantza 11n dugun bulegoan izango da tailerra, eguen goizetan. Beste data batzuk ere aurreikusten ditugu jendearen interesaren arabera sortuko direnak. Eta online egiteko aukera ere egongo da.

Zertan lagundu ahal diozue jendeari?

Osasun arloko psikologoa naiz, eta tabakoaren inguruko masterra daukat eginda. Menpekotasun fisikoari eta psikologikoari aurre egiteko prozesuan laguntza eskaini diezaieket erretzaileei.

Terapiak banakoak edo taldekoak izan daitezke. Zertarako balio du horietako bakoitzak?

Askotan lehen zigarroak taldean erretzen dira, lagunekin... Sozialki egiten den zerbait da. Eta taldean hasten bagara, zergatik ez laga taldean? Gizakia taldean mugitzen da eta taldea oso modu ona izaten da aldaketak egiteko ere. Helburu bera duten pertsonen artean elkartzeak oso dinamika ona sortzen du. Taldekoen artean konpromisoak hartzen dituzte... Baina agian, kasuren batean, ordutegiak direla-eta, edo beste ezaugarri pertsonal batzuegatik, bakarka lan egitea planteatu dezakegu. Horretarako beharrezkoa izaten da egiten dugun lehen elkarrizketa.

Askotan entzuten dugu “nik ezin dut tabakoa laga” edo “orain ez da momentua” bezalako esaldiak. Aitzakiak dira edo egia da pertsona batzuentzat ezinezkoa dela?

Ez naiz ausartzen aitzakia hitza erabiltzen, aztertu beharreko egoera pertsonal asko baitaude. Eta hori da

Erretzeari utzi nahi diozu?

¿Quieres dejar de fumar?

Tasa de éxito del **60%** -ko arrakasta tasa

Doako zerbitzua Servicio gratuito

Terapia presentziala eta online gure egoizetan:

Terapia presencial y online en nuestras sedes:

Donostia, Irun, Tolosa, Zarautz, Zumarraga, Eibar, Azpeitia.

Izena emateko epea / Inscripción abierta hasta: Urtarrilak 15 de enero

943 45 77 22
contraelcancer.es/tabakoari-agur

minbiziaren aurka Gipuzkoari

contra el cancer en Gipuzkoa

lehen elkarrizketan egiten duguna. Aurretik erretzeari lagatzen saiatu den jakitea garrantzitsua da, zein lorpen izan dituen aurretik, noraino iritsi izan den, eta oraingo egoeran ezberdin egin daitekeen aztertzen dugu. Inoiz laga ez badio edo eta beste egoera pertsonal batzuekin gainezka badabil, elkarrekin planteamen-



“Kanpo laguntza izateak hamar aldiz handitzen du helburua lortzeko aukera”

Informazioa eta izen-ematea



du bat bilatzen saiatzen gara bere helburua lortu ahal izateko. Zailtasunei aurre egiten laguntzea izaten da gure eginbehar garrantzitsuenetakoa.

Denok ezagutzen ditugu erretzearen ondorioak eta, hala ere, jende askok ez du lagatzeko pausoa ematen. Zer behar dute pertsona horiek erretzeari lagatzeko?

Beharrezkoa izaten dena motibazioa da, laga nahi izatea eta pausoa emateko prest egotea. Desiotik ekin-tzetara pasatzeko denbora eta indarra beharrezkoak dira. Nork bere buruari aukera bat ematea, beldur horiei aurre egiteko eta erretzeari lagatzea posible dela erakusteko.

Zergatik da garrantzitsua kanpoko laguntza izatea?

Prozesu hauetan, bakarka baino, kanpoko laguntza izateak hamar aldiz handitzen du helburua lortzeko aukera. Garrantzitsua izan daiteke kanpoko laguntza profesionala eskatzea.

Zeintzuk dira momentu zailenak behin lagatzeko erabakia hartu eta gero?

Ez da erantzuteko erraza. Pertsona eta momentuaren arabera aldatu baitaiteke. Batzuentzat erretzeari uzteko pausoa ematea oso zaila izaten da, bereziki inoiz laga ez dutenentzat. Egoera berri horretara pausoa ematea hutsera pauso bat ematea bezala bizi daiteke. Eta, behin pausoa emanda, ondo daramate prozesua. Beste batzuk, berriz, uzteko ez dute zailtasunik, baina lehen bost egunetan oso gaizki pasatzen dute; aldiz, badira erretzeari laga eta handik hiru-sei hilabetetara krisiak izaten dituztenak ere. Esan dudan bezala, zaila da erantzuten. Hala ere, esperientziak esaten dit, as-

kotan, uste baino errazagoa izaten dela prozesua. Ez dut esaten erraza denik, baina batzuetan uste baino errazagoa izaten da.

Zenbat denbora irauten du menpekotasun fisikoak? Eta psikikoak?

Ikerketen arabera, dependentzia fisikoak 4-6 aste irauten du, nahiz eta askorentzat gogorrenak lehen egunak izan. Psikologikoa, berriz, zailagoa izaten da kalkulatzeko, nahiko subjektiboa delako. Hala ere, guk urtebeteko epeaz hitz egin ohi dugu. Horrek ez du esan nahi urtebete sufritzen igarotzen denik, baizik eta beharrezkoa izaten dela egoera ezberdinetatik pasatzea erre gabe (lehenengo gabonak, oporrak, egoera tristeak, alaiak...) lotura psikologiko hori eten dela ikusteko.

Erretzaile mota desberdinak daudela esan daiteke? Zergatik dute batzuk beste batzuk baino menpekotasun handiagoa?

Nik esango nuke ez dagoela berdina den erretzailerik, pertsona bakoitza ezberdina den bezala. Menpekotasunak multifaktorialak izaten dira (faktore organikoak, kontsumo kantitatea, erretzeari erlazionatzen zaizkion egoerak, emozioak, ohiturak...). Eta, hori guztia kontuan hartuta, erretzeari lagatzeko momentuan, prozesu horretan bidelagun izateko momentuan, norbanakoa kontuan hartu behar da. Bati laguntzen dionak agian beste bati lagun diezaioteko, edo ez. Eta horretan saiatzen gara, bai taldean eta bai bakarkako lanean. Norberaren estrategiak indartzen edo berriak proposatzen, helburua lor dezaten.

“Kirola egiteko ohitura hartzea eta balore batzuk barneratzea besterik ez dugu nahi izaten”

HEGOI ESTEBAN • Kalamua Judo Taldea



Kalamua Judo Taldea sortu eta hainbat hamarkadatan judoa, karatea, jiu-jitsua eta beste kirol-jarduera batzuk herrian zabaldu ondoren, Manu Agirre maisu handiak azaroan utzi gintuen. Herriari asko eman zion gizona izanik, laga duen hutsunea ere handia da, baina oso hurbiletik ezagutu zuen Hegoi Esteban ilusio handiz saiatuko da bere tokia betetzen.

Hegoi Estebanek karatean eman zituen lehen pausoak eta geroago iritsi zen judoa bere bizitzara. Nola iritsi gainera, gaur egun buru-belarri jarraitzen baitu kirol horretan Kalamua Judo Taldearen arduradun bezala. Umeak zein helduak batzen dira Kalamuak Txirio-kalen duen egoitzan, Agirrek hasitako bideak jarraipena izango duela erakutsiz.

Zer moduzkoak izan dira Kalamua Judo Taldearen ardura hartu ondorengo lehen hilabeteak?

Lehenengo egunak zailak izan ziren, baina, geldirik egon ez garenez, ez dugu gehiegi pentsatzeko denborarik izan. Manu hil eta egun berean klaseak izan genituen, hurrengoak etorri ziren, eta gurpila ez zen gelditu. Horrek trantzea hobeto pasatzen lagundu digu. Egoera txarra bizi izan arren, ondo egoteko aukera eman digu horrek guztiak.

Argi zeneukaten zu izango zinela Manuren lekukoa hartuko zuena? Aldaketarako prestatzen hasiak zinenen?

Azkenean gertatu dena da ni naizela gelditu den irakasle bakarra. Egia da Manuri esan niola unea helitzen zen momentuan bere tokia betetzea gustatuko

litzaidakeela, baina ez genekien hain azkar gertatuko zenik. Berari esker Legution klaseak ematen hasi nintzen martxa eta esperientzia hartzeko, egunen batean hemen hasiko nintzela pentsatuz, baina azkenean bat-batean gertatu den zerbait izan da.

Manuk urte asko egin ditu Kalamua taldearen buruan. Nolako legatua laga du?

Hau laga digu (dio entrenatzen ari diren umeak seinalatuz). Eibarren judoarekiko afizioa egotea da bere legatu handiena, umeen zein helduen artean. Berak laga duen guztiari esker, gogo handiz ekiten diot datorrenari, eta ez bakarrik judoari dagokionez, baizik eta edozein gauzari. Egiten zuen guztiari gogo handiz ekiten zion Manuk, bestela ez zuen egiten.

Zereginean erne eta tinko egon zen azkenengo momentura arte.

Bera hil aurreko azken asteburuan Espainiako Jiu-jitsuko Txapelketa izan genuen Ipurua kiroldegian eta bera han egon zen jo eta ke. Gainera, horren ondoren afaria egin genuen elkarte gastronomikoan.

Aipatu duzu gehiegi pentsatzeko aukerarik ez duzula izan, baina taldean aldaketak egitea aurreikusten duzu?

Betiko martxan jarraituko dugu. 50 urtean ondo ibi-



Bideoa ikusteko



“Kalamuan familia giroa aurkitu nuen, lehen egunetik oso ondo sentitu nintzen eta lagunak egin nituen hasieratik”

li den gauza bat ez dugu aldatuko. Agian gauza gutxi batzuk aldatu daitezke, zerbait modernizatu, baina aldaketa sakonik ez da egongo. Manu beste belau-naldi batekoa zen eta kudeaketa kontuetan gauzak digitalizatu egingo ditugu, adibidez, baina gauza txikiak dira. Klaseei, klubaren filosofiari eta horrelako gauzei berdin eutsiko diegu. Kalamua Judo Taldea herriko kluba da. Guretzat garrantzitsua da meek judoa egiteko afizioa hartzea eta balore batzuk jasotzea, eta helduek ere aukera izatea nahi dugu.

Gaur egun nolako egoera bizi duzue taldean? Zenbat ikasle dituzue? Nola funtzionatzen duzue?

Umeen bi talde ditugu eta taldeak beteta daudela esango genuke. Ume gehiagok etorri nahi badute, ongi-etorriak izango dira, baina daukagun tatamiarekin arazoak izango genituzke bertan sartzeko. Oso talde politak dira eta neskek eta mutilak elkarrekin egiten dute judoa, bereizi barik. Helduen taldean, bestalde, jende kopuru handia dugu baita ere. Beste kirol talde batzuekin gertatu den bezala, pandemiaren ondorioz jendeak taldea lagako zuen beldur ginen.

Zergatik?

Pandemiarekin jarduera guztia eten zen eta zalantzak genituen noiz eta nola bueltatuko ginen. Gainera, kon-

tutan izanda gure kirola kontaktu zuzeneko delatuta, ez genekien nola moldatuko ginen. Foballean edo saski-baloian, adibidez, aukera gehiago dituzte, baina guk nola egingo dugu borroka kontakturik gabe? Maskarekin borrokatzen hasi behar ginen, arau guztiak betetz, baina, egia esan, umeen erantzuna bikaina izan zen, guztiak bueltatu zirelako taldera. Momentu kritikoa izan zen, baina inork ez zuen taldea utzi.

Ikusten denez, gainera, oso gazte hasten dira judoan.

4 urtetik gorakoak daude taldean. Batzuk 4 urterekin datoz eta ondo moldatzen dira, eta beste batzuk 6 urterekin oraindik zailtasunak dituzte kasu egiteko, baina hori ume bakoitzaren arabera da.

Zer behar da judoan egiteko? Berezko zerbait edukitzea beharrezkoa da?

Gogoia besterik ez da beharrezkoa. Kirol honek duen gauza on bat da aukera ezberdinak ematen dituela jarduera egiteko: zutik, lurrean... Eta modu batean ez baduzu egin nahi, beste teknika batzuk ikasi ditzakezu. Bakoitzak ezartzen du bere neurria, gu ez gaudelako kirolari profesionalen bila. Kirola egiteko ohitura hartzea eta balore batzuk barneratzea besterik ez dugu nahi. Gero, helduak direnean lehian hasi nahi badute, aurrera.



Txirio-kalen dago Kalamua Judo Taldearen egoitza. EKHI BELAR

Izan ere, kirola izateaz gain, judoak badu beste alderdi kultural bat edo, zuk esan bezala, balore jakin batzuen alderdi bat.

Hori da, arau batzuk jarraitzen ditugu. Adibidez, besteenganako errespetua. Era berean, beste klub batzuekin elkarketak egiten saiatzen gara, eta beste toki batzuetara joaten gara entrenatzera bestelako toki eta talde batzuk ezagutzeko, besteak beste.

Judoaz gain, zein beste kirol egiteko aukera ematen duzue taldean?

Jiu-jitsu eta defentsa pertsonala. Jiu-jitsuak judoarekin antzekotasuna du, baina karateko kolpeak bezala eman daitezke.

Urteak daramatzazu judoan. Nola hasi zenuen bidea?

Jendeak pentsatzen du bizitza osoa daramadala judoan, baina Kalamua lehen aldiz etorri nintzenean, antzinako lokalera, karatea egin nuen. Gero laga egin nuen eta, nagusitan berriz itzuli nintzenean, dagoeneko ez zuten karatea ematen, judo bakarrik. Probatu egin nuen eta orain hemen gaude elkarrizketa hau egiten.

Zerk harrapatu zintuen?

Ez dakit judoaren kontua izan zen ala Kalamua tal-

“Taldekideengandik asko ikasten duzu eta eurek zugandik ikasten dute. Kate moduko bat dago eta denon artean egiten dugu judoaren transmisioa”

dearena. Edo biak batera. Familia giroa aurkitu nuen taldean, lehen egunetik oso ondo sentitu nintzen eta lagunak egin nituen hasieratik. Gainera, asko gustatzen zitzaidan umeak entrenatzen ikustea. Irakaslea hor dago, baina taldekideengandik asko ikasten duzu eta eurek zugandik ikasten dute. Kate moduko bat dago hor eta denon artean egiten dugu judoaren transmisioa. Judoa zerbait berezia da. Ez da kirol hutsa, beste gauza bat da. Norbaitek esan zuen bezala, judo taldean egiten den bakarkako kirola da. Beraz, taldekideak eta beste klubetako kideak beharrezkoak dira norberak bere maila hobetzeko.

Eibarko Txakurkrosa bi egunetako izateko asmoa agertu dute antolatzaileek

Eguraldi kaxkarrari aurre eginez, aurreko domekan Arraten jokatuak Eibarko Txakurkrosaren 3. edizioan 110 partaidek neurtu zituzten indarrak. Oraingoan, gainera, proba nagusiarekin batera, bizikleta gainean egiten den bikejoring modalitate berriaz gozatzeko aukera ere izan zen. Hori gutxi ez eta gure herriko hiru ordezkarri podiumetik oso gertu izan genituen.

Goizeko 08:00etan abiatu zen albaiari-kontrola egin ondoren, 09:15ean teknikoak bildu eta ordu laurdenera, 09:30ean puntu-puntu, hasi zen bizikleta-proba. Zazpi kilometroko bikejoring mailako lasterketaren amaieran, Andoni Mayo eta Dexter txakurra lauga-

rren postuan sailkatu ziren, Iosu Varonak, Ekaitz Erauzkinek eta Xabier Dilizek osatutako podiumetik ezin gertuago. Lasterketa nagusian, bestalde, Euskal Txakurkros Ligako seigarren jardunaldia zegoen jokoan eta, Kalamuako puntan behelaino zegoela-eta, ibilbidea murriztu behar izan zuten azkenean, zazpi kilometrotara mugatzeko izena eman zuten 90 parte-hartzaileek bete beharrekoa. Eta hor ere gauza bera: eibartarrak laugarren postuan! Unai Fernandezek eta “Duncan” txakurrak postu horrekin konformatu behar izan zuten. Jakina, bera izan zen Eibarko onena, emakumezkoetan Sonia Dominguezek eta “Zeus” txakurrak lortu zuten postu bera.



Unai Fernandez eta Sonia Dominguez.

Arraten izan ziren parte-hartzaile guztiek “antolatzaileek egindako lana goraiatu zuten, prestatutako ibilbide ezberdinen egokitasunarekin batera”. Gehiago oraindik: bada go asmoa datorren urteari begira bi eguneko proba antolatzeko.

Itzulia Basque Challenge 2023 egitasmoan izena eman daiteke dagoeneko

Aurreko barixakuan Eibarko udal-letxean aurkeztu zuten ekitaldian, Eibarren abiapuntua eta helmuga izango dituen Itzuliaren seigarren etapako ibilbidearen nondik norakoekin batera oraingoan berritasuna izango den beste egitasmo bat ere plazaratu zuten: hurrengo egunean egingo den proba zikloturista, hain zuzen. Bertan parte hartzeko Itzuliaren webgunean izena eman daitekeen lasterketa horrek bi ibilbide eskainiko ditu: “Batetik, World Tour delakoa izango da, txirindulari profesionalak egindako bezperako ibilbide berberarekin; eta, bestetik, ibilbide laburragoa eta ez hain gogorra egiteko aukera. Bigarren horrek 80 kilometro izango ditu eta 2.000 metrotik gorako desnibela gaitutiko, lau mendate gaitutuz”.

Eibarko Udalak eta Itzuliak modu bateratuan adostu dute proba hori antolatzea, Eibarrek Kirolaren Europar Hiria (2023) aitortpena jaso duela-eta.

Apirilaren 8an eta 9an

Zapatuan jokatu den Itzuliaren azken etapa horren ia 140 kilometro izango ditu eta inoiz baino etapa nagusia izan daiteke, aurtengo edizioan ez delako erlojuz kontraktorik egongo. Zazpi mendate puntuagari izango ditu, euretako hiru lehen mailakoak. Beraz, Azurki, Gorla eta Krabelin protagonista izango dira beste behin eta “eguneko azken-aurreko mendatea Ixua izango da, azken urteetan ez bezala”. Julian Eraso OCETA talde antolatzailearen buruarekin eta Roberto Laiseka



Itzuliako zuzendari teknikoarekin batera, Jon Iraola alkatea eta Ander Curiel Kirol zinegotzia izan ziren aurkezpenean, guztiak ere “Eibarrek lehen mailako txirindularitzaren aldeko apustua” egiteaz harro. Azken urteetakoari begira ere bada beste aldaketa bat: “Arraten amaitu beharrean, lasterketa herri barruan amaituko da, eibartarrak bete-betean bizi ahal dezaten”. Zikloturisten Challengea domekan izango da, hurrengo egunean..

Mendiaz gozatzeko aukerak mota guztietako irteeretan



Ohiko bidetik joz, Eibarko Klub Deportiboko Mendi Batzordekoek urte guztirako irteerak prestatu dituzte dagoeneko eta aurreko astean horien aurkezpena egin zuten Topalekun. Ez hori bakarrik, euren interesa ere agertu zuten mendi irteera horietan parte hartzen dutenei jende berria gehitzeko, horretara guztiz irekita daudela jakinarazteko: "Badira mendi altuagoak eta txikiagoak, ibilbide luzeagoak eta motzagoak, irteera samurragoak, gutxieneko prestaketa eskatzen dutenak... neurri guztietarako aproposak izan daitezkeenak. Bakoitzak bere erritmoan dabilen taldea aurkitu dezake. Eta bizi daitezkeen giroa primerakoa da, harremanak zabaldu eta jende berria ezagutzeko aproposenak. Guzti hori mendian, naturarekin bat eginez". Irteera gehienak zapatu goizean egiten dira (07:30/08:00), autobusez, eta informazioa jasotzeko Deporren martitzenero eta eguenero hartzen dute jendea, 19:30etik 20:30era.

Guztira 29 dira antolatutako ekitaldiak: 17 egun bakarreko irteerak, beste bat gauez egitekoa, hiru asteburukoak, beste bi Aste Santuko eta urriaren 12ko zubiak aprobetxatuta eta hiru trailak, Jardunaldi Mikologikoak, koba baterako bisita eta Eibarko Itzulia ahaztu barik. Irteera horietan Elgoibarko Morkaiko eta Zarauzko Pagoeta mendi taldekoekin elkarlanean jardungo dute batzuetan, eta Aranzadi (Mikologikoak) eta Kalamua Korrikalari Taldea (trailak) ere hor izango dira eskutik..

Zeharkaldiei dagokienez, sei etapa izango dituen **Herri Txikiena** hasi zuten aurreko zapatuan. Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko mugetan kokatutako herri txiki bezain politikak dira ibilbide horietako protagonista. Lehen etapa horretan Aritxulegiko aterpetik Arantzaraino joan ziren, Bianditz eta Izu gainak eginez. Hilaren 28an bigarrenari helduko diote, Arantzatik Zubietaraino. Otsailaren 11n hirugarrena izango dute zain, Zubietatik abiatu eta Leitzan amaitzeko. Leitzatik Betelura joango dira laugarren etapan, martxoaren 11n. Handik hamalau egunera bosgarrenari helduko diote: martxoaren 25 horretan Betelun hasi, Gaintzatik pasatu eta Amezketan amaituko dute. Seigarren eta azken etapa azarorako lagako dute, hilabete horretako 18an Amezketatik Zaldibiaraino joateko, tartean 1.342 metroko Larrunarri/Txindoki eginez.

Artzaintza Naturbidea amaituko dute aurten

Bitarte horretan orain dela lau urte hasitako **Artzaintza Naturbidea** ren azken bost etapa egingo dituzte. Aste Santua pasatuta, apirilaren 22an Krabelin taldeak prestatutako zeharkaldi horren 18. etaparekin dute hitzordua: Villalba de Losatik Barriga de Losara joango dira. Maiatzean beste bi etapa egingo dituzte: 6an Barriga de Losan hasi eta Lalastran amaitzeko; eta hilaren 20an Lalastratik San Millan de San Zadornilerako bidea egiteko. Urriaren 7an izango du jarraipena Artzaintza Naturbide horrek, San Millanen hasi eta Guinean amaituko den ibilbidearekin. Amaitzeko, 22. eta azken etapa abenduaren 16an egingo dute, Guineatik Subijana-Morillaseraino, 1.171 metroko Kruzeta gaina eginez. Egun horretan, gainera, urteko azken bazkaria egiteko aprobetxatuko dute.

Deportiboko Iheslariak taldekoek, bestalde, gutxiago ezagutzen diren txokoetarako ibilbideak prestatu dituzte, **bi Araban eta hirugarrena Burgosen**. Uztailaren 1ean egingo dute lehenengoa, Opakuatik San Romanera; irailaren 23an bigarrena, Pancorbotik Miravachera; eta urriaren 21ean hirugarrena, Santikurutze Kanpezutik Maetzuraino, bidean Arburura igota.



Aurreko zapatuan egindako "Herri Txikiak"-en lehen etapak oso erantzun ona izan zuen. Hilaren 28an bigarren etapa duzue zain.

Eibarko Itzuliak aurten du hitzordua

Kalamua Korrikalari Taldekoek urteroko egitarauari helduko diote 2023an ere eta maiatzean (UdaberriTrail), urrian (UdazkenTrail) eta abenduaren 24an (Gabon-Trail) antolatuko dituzte hiru probak. Espeleologia batzordekoekin urtero egiten den **koba** baterako bisitak azaroaren 4an izango du hitzordua Gibixo mendilerroan, eta Los Santos eta Sosterga kobak izango dira ikustekoak. Bestalde, bi urtetik behin egiten den **Eibarko Itzuliak** betiko datei eutsiko die, Finalista Egunarekin bat eginez. Ekainaren 3an egingo da Eibar punta batetik bestera inguratzen duen 38 kilometroko ibilbide hori ("mendimaratoia ia"), Azurtzan eta Arraten hornitzeko anoak izango dituena, eta badago aukera ibilbide laburragoa egiteko, "Azitainen amaituta".

Mendiko Eskiko asteburua egiteko martxoaren 11 eta 12ko asteburua aurreikusten badute ere, betiko lez, ea elurrik den edo ez, horren menpe egongo dira. Bada ere berreskuratu duten irteera mota bat: orain dela urte batzuk **gauez** egiten zutena. Data ere ipini diote irteera horri (irailak 30), baina oraindik nora joango diren zehazteke dago. Ezin daiteke ahaztu, ezta, urtero egiten duten **sagardotegira** mendi irteera, aurten otsailaren 25ean egingo dutena Elgoibarko Morkaiko Mendizale Elkartekoekin batera.

Aste Santua eta Urriko zubia

Eta egun batetik gorako irteerei heltzean, Iparraldera eta Pirinioetara egiten dituztenak ditugu alde batetik, eta **Aste Santukoa** bestetik. Azken horren kasuan, aurten Omaña eta Alto Sil izango dute jopuntua apirilaren 6tik 10era artekoan. 2.000 metro pasatxo dituzten Tambaron, Nevadin eta Catoute igoko dituzte egun horietan. Hilabete bereko azken asteburuan (29/30)

Mendi batzordekoek irteeretan parte hartzeko gonbidapena luzatzen diete zale diren guztiei



Iparraldera joateko aukera izango dute interesatuek, Eskaleta, Alba eta Nethe egiteko. Behin ekainean sartuta, 17/18ko asteburuan **Pirinioetara** izango da irteera, 2.000 metroak ondo gaudituta dituzten Erata, Peña Roya eta Peña Blanca egiteko aukerarekin.

Aipatutakoei zenbait egunetako beste bi irteera gehitu behar dizkiegu: uztailetik 22tik 25era egingo duten **Araneko Itzuliaren** azken etapa, orain dela lau urte hasitakoa amaitzeko, eta urriaren zubian, hilaren 12tik 15era, **Riañoko mendiez** gozatzeko aukera eskainiko duena, horiek ere 2.000 metrotik gorakoak.



Jose Luis González Poxpolo Kultura teknikaria, Jon Iraola alkatea eta Patxi Lejardi Kultura zinegotzia, egitaraua aurkezten. SILBIA

Urte hasierako musika programa zabalduko du gaur MICE-k

Estilo eta joera ezberdinetako zazpi emanaldi biltzen dituen musika-programazioa antolatu du Udaleko Kultura Sailak urteko lehen hiru hilabeterako. Egitaraua gaur bertan hasiko da, MICE-k (Miren Narbaizak) Coliseo antzokian 19:00etan emango duen kontzertuarekin.

Horren ondotik eta apirila bitartean, beste sei emanaldi gehiago egingo dira Coliseon eta Portaleko areto nagusian, musiko hauen eskuetik: Kamikaze Helmets, El Pacto Rock Band, Rock con Ñ, Carmen Xia, Will Jacobs & Marco Coll eta Markos Untzeta. Aurkezpen egunean nabarmendu zutenez, egitaraua antolatzeko orduan eibartarren alde egiten ahalegindu dira.

Prestatu duten programari buruzko xehetasunak Patxi Lejardik eman zituen: “Hilaren 20an abia-

tuko da egitaraua, Coliseo antzokian, 19:00etan hasiko den Miren Narbaiza (MICE) eibartarraren kontzertuarekin. Sarrerak 10 euro balio du, 7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin”.

Miren Narbaizak bakarkako bere proiektuan sakontzen jarraitzen du MICErekin, beste egitasmo batzuetan (Napoka Iria, Perlak, Drumkopters eta Dual Split) parte hartu eta gero. Gaur zuzenean aurkeztuko duen ‘Lautada’ bere hiru garren lana da eta, bertan, azken

urteetan bizileku duen Arabako paisaiari egiten dio erreferentzia. Lan horretan, Narbaizak 90eko hamarkadako indie-rock kutsuari eutsi dio, “dotoreziaz, elektronikak ukitu, gitarra bortitz eta *groove* sentsualekin”. Musikari hauek izango ditu lagun: Mikel Santxez (bateria), Igor Gogortza eta Joseba Baleztena (gitarrak), Iñigo Telletxea (baxua) eta Aitor García de Vicuña (teklatuak).

Domekan, berriz, Kamikaze Helmets taldearen txanda izango da, Coliseon, 19:00etan. Emanaldia Portaleko Klubaren Rock XXI zikloaren barruan antolatu dute eta sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Azaldukoari jarraituta, “Kamikaze Helmets taldea blues & rock talde bat da, Gabri Casanovak eta Kike Parrak, alegia, estatuko rock, blues eta funk eszenako bi musikari ospetsuenez osatua. Haien proposamen berriarekin, proiektu propioa egitea erabaki dute, Led Zeppelin, Black Keys eta White Stripes bezalako taldeetatik edanez”.

Rock eta blues doinuak

Hurrengo emanaldia urtarrilaren 28an izango da: Javier Alzola buru duen El Pacto Rock Band Coliseon arituko da, 19:00etan. Otsailaren 11n, bestalde, Rock con Ñ 80ko hamarkadako rock espainiarra jotzen duen taldea izango da (Coliseon, 19:00etan). Otsailaren 26an, berriz, Carmen Xiaren kontzertua hartuko du Portaleko aretoak, 19:00etan. Martxoaren 26an, Portaleko Kluba Zikloaren barruan, Will Jacobs & Marco Coll, bluesa egiten duen taldeak joko du. Eta, egitaraua biribiltzeko, Markos Untzeta eibartarrak ‘Ekilibrista’ lana aurkeztuko du apirilaren 26an (Coliseo antzokian, 20:00etan).

Tubby the tuba



Non dago musika?



Umeentzako saioa egingo du Musika Bandak bihar

Urteko lehen kontzertua eskainiko du bihar Eibarko Musika Bandak eta berritasunekin itzuliko da, gainera. Izan ere, “sekula egin ez dugun kontzertu-mota eskainiko dugu”, Andoni Vazquez zuzendariaren berbetan. Bandak Felipe Murillo ipuin-kontalari azpeitiarrak izango du lagun Coliseon, umeei zuzendutako kontzertua emateko asmoz. Horrela, bi ipuin musikatu eskainiko dituzte: ‘Non dago musika?’ eta ‘Tubby the tuba’. Emanaldiaren ordutegia ere ez da ohikoa izango, saioa zapatu arratsaldean egingo baita, 17:00etan. Sarrera doan da.



Danborrada kontzertua egingo da domeka eguerdian

Usartza Txistulari Taldeak Danborrada kontzertua egingo du domekan, 12:30ean Coliseon. Txistulariekin batera, Eibarko Danborradak eta Metal boskoteak (Unai Cabanzón, Danel Montero, Iñaki Orbeago, Markel Uribarren eta Jesús Rioja) hartuko dute parte. Aspaldi hasi ziren txistulariak San Sebastian eguna ospatzen: “Sarriegiren doinuak txistulari banda formatuan jotzen hasi ginen, Musika Bandarekin ere aritu izan gara inoiz, baina, antolaketa errazteko, gaur egingo formatura pasatu ginen”.



Mikel Arrillagaren bertsoak saritu dituzte Mungian

Mikel Arrillaga bertsolari eibartarrak hirugarren saria irabazi du Mungia XXIV. San Antontxu bertso paper lehiaketan, “Maitasun istorio bat” izenburuko sortarekin. Lehen saria Urko Egaña bertsolari azpeitiarrak irabazi du “Alde bakarreko begiradaz” sortarekin eta bigarren saria Iñigo Legorburuk eraman du “(H)Ilbetez” lanarekin. Sari banaketa aurreko domekan, San Antontxutako jaialdiaren amaieran egin zuten. Lehiaketa Mungia Tuket bertso eskolak antolatzen du, hango Udalaren babesarekin.

Plazara Dantzara hilaren 27an

Plazara Dantzara saioa egingo da Errebal Plazan datorren barixakuan (urtarrilak 27), 19:00etan hasita. Lolita Delmonteil (Okzitania-Nafarroa Beherea) arituko da musika zuzenean eskaintzen (esku-soinua, ahotsa eta ttun-ttuna). Dantzaldietako ohikoak (lotuan, soltean, jauziak, kontradantzak...) eta Okzitaniako dantzaren bat (momentuan azalduta) joko ditu.



Jose Miguel Laskurainen lan berria YouTuben entzun daiteke

José Miguel Laskurain musikagile eta orkestra zuzendariak bere lan berria, “Disdirak” izeneko kaleratu du Interneten. Hari-instrumentuek (1. biolina, 2. biolina, biola, txeloa, kontrabaxua eta pianoa) osatutako gantza-taldearentzat sortu duen lanak izaera intimista nabarmena dauka. Mugimendu bakarrean idatzitako piezaren iraupena lau minutu eta erdikoa da eta YouTuben entzun daiteke.

Urtarrilak 20/26

BARIXAKUA 20

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00/18:00 2-8 urte bitarteko haurrentzat. Torrekuako parkean.

MUSIKA

19:00 MICE (Miren Narbaiza), "Lautada" aurkezten. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.



MUSIKA

17:00 Eibarko Musika Bandaren kontzertua, umeendako. Bi ipuin musikatu, Felipe Murillo ipuin-kontalariarekin. Doan. Coliseo.



BISITA GIDATUA

17:00 Museoko erakusketa iraunkorrera (euskeraz). 18:30ean gazteleraz. Aurretik izena emanda. Armagintzaren Museoa.



ZAPATUA 21

GABONETAKO HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30 2-12 urte bitarteko umei zuzendutako Gabonetako Haur Parkea. Astelena.

TAILERRA

16:30/18:30 Kotoizko olagarroak egiten ikasteko tailerra, Noupops elkarteko Cristina Peredaren eskutik. Aurretik izena emanda. Ipuruako Merkatu Plaza.



AL-ANONEN BILERA

18:00 Al-Anon Familia Taldearen bilera irekia. San Andres elizako lokalak.



DOMEKA 22

DANBORRADA

12:00 Danborradari eskainitako kontzertua, Usartza Txistulari Taldearen eskutik. Coliseo.



MUSIKA

19:00 Kamikaze Helms. 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.



EGUAZTENA 25

BATZARRA

17:00 Pagatxa emakume elkartearen urteko batzarra. Portalea (areto nagusia).

EGUENA 26

HITZALDIA

10:00/12:00 "Erromaren herentzia", Miguel Arroitajauregiren eskutik. Armeria Eskola.

ERAKUSKETAK

Ostailaren 19ra arte:

- **"ARTEA ETA ARKITEKTURA EIBARREN II"** Manuel Zabalaren maketak. (Armagintzaren Museoa).
- **"BEARDAN BEZELA (GEHIENETAN)"** La Taller grabatu-eskola (Portalea).

Martxoaren 19ra arte:

- **"FILMETAKO ARMAK. MUSEOAREN BILDUMA ZINEMAN.** (Armagintzaren Museoa).

Eskualdeko Agenda

ELGOIBAR

20an (BARIXAKUA)

ANTZERKI FAMILIARRA

17:00 ETA 19:00 /

Herriko Antzokia

"Urteak bete, abenturak bizi" (Pirritx, Porrotx eta Marimotots)



ERMUA

20an (BARIXAKUA)

ANTZERKIA

20:30 / Ermua Antzokia

"¡Viva la Pepa!" (Pepa Rus)



ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **21ean:** 19:45, 22:30
- **22an:** 20:00
- **23an:** 20:30

"El despertar de María" UMOREZKOA



2022/Frantzia/93'
Zuzendaria: Lauriane Escafre
Aktoreak: Karin Viard, Gregory Gadebois, Noée Abita
Komedia erromantikoa

2 ARETOA

- **21ean:** 19:45, 22:30
- **22an:** 20:00
- **23an:** 20:30

"Falsificador pasaportes" DRAMA



2022/Alemania/116'
Zuzendaria: Maggie Peren
Aktoreak: Louis Hofmann, Jonathan Berkin, Luna Vedler
Biografikoa/Nazismoa

ANTZOKIA

- **21ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **22an:** 17:00 (1 Aret.)
- **23an:** 20:30

"El peor vecino del mundo" UMOREZKOA



2022/AEB/125'
Zuzendaria: Marc Foster
Aktoreak: Tom Hanks, Mariana Treviño, Rachel Keller
Komedia/Remakea

2 ARETOA

- **21ean:** 17:00
- **22an:** 17:00

"Kung Food" ANIMAZIOA



2018/Txina/99'
Zuzendaria: Haipeng Sun
Abenturak/Umeentzako/Arte martzialak

Jose Antonio Laskurain Ugalde

2023/01/09

"Ezerk ezta inork ez du beteko zure ausentzia. Asko gozatu zenuen bizitzaz. Guk zurekin. Horrela jarraitu dezazula. Ikusi arte, aitxa!"

- ZURE ZALEAK -





Gloria Arostegi Egaña

5. URTEURRENA
2018/01/21

"Gure bihotzetan itsatsita zaittugu"

- ETXEKOAK -



688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eu



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behariko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue.



Zorionak, **HARAN!!** Hillaren 18xan 3 urtetxo bete zenduaz-en-eta. Musu bat etxe kuon partez. Illargiraino eta buelta maite zaittugu.



Zorionak, **LUKA**, gaur 11 urte egingo dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Aneren partez. Asko maite zaittugu!



Zorionak, **JURGEN!** Etzi 11 urte beteko dozuz-eta. Egun bikaiña pasau! Besarkada haundi bat famelixakuon eta, batez be, ama eta aittaren partez.



Zorionak, **NAHIA!!** Astelehenian 11 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat aitta, ama eta famelixaren partez.



Zorionak, **JULEN**. 6 urte zutaz disfrutatzen. Musu potolo bat famelixaren eta, bereziki, Mikelen partez. Ondo pasu martitzenian.



Zorionak, **IRAIA**, neska haundi, domekan 4 urte beteko dozuz-eta. Ondo pasau zure egunian eta patxo haundi bat etxe kuon partez!



Zorionak, **EIDEN!!**, gaur 6 urte betetzen dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **ANER!** Ederto ospatu genduan zure urtebetetzia. Musu haundi bat danon eta, bereziki, Liberen partez.




Zorionak, **ION**, astelehenian urtiak beteko dozuz-eta. Ondo ondo ospatu. Musu haundi bat lagun guztien partez.



Zorionak, **ANE**, atzo 17 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Iraiaren partez.



Zorionakkkk, **AIUR**, eguaztenian 6 urte bete zenduaz-en-eta. Musu pillo bat famelixa guztiaren eta, batez be, Izaro eta Eder-en partez. Holan jarraitu!



Zorionak, **IERA!!** Zapatuan 3 urtetxo bete zenduaz-en-eta. Musu eta besarkada haundi bat, txapelduna, famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **NADIA**, hillaren 18xan 14 urte bete zenduaz-en-eta. Asko maite zaittuen famelixaren partez.



Zorionak, **MANEX**. Domekan 2 urte beteko dozuz-eta. Patxo erraldoi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MAIALEN!** Atzo 11 urte bete zenduaz-en-eta! Patxo potolo bat etxe kuon eta, batez be, Uxueren partez!



Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Pisia salgai Urkin. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Bista zabaleko 2 balkoi. Igoailua 0 kotatik. Garaje itxia aukeran eraikin berean. 690031734.

1.2. Errentan

- Bi lagunek baserria hartuko lukete errentan Eibar inguruan. 688642761.
- Etxea hartuko nuke alokairuan. Gutxi gorabehera 600 euroren bueltan. 695752281.
- Pisia alokagai Amañan. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kanpora begira eta oso argitsua. Guztiz berriztuta. Igoailuarekin. Bikote baten-dako aproposa. 637587823.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakume euskalduna eskaintzen da zainketa lanetarako eta etxeko lanak egiteko. Autorekin. Orduka ere lan egiteko prest. 657794652.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak eskolara eraman eta etxeko garbiketarako egiteko. Baita arratsaldez komertzio edo harreraren baten lan egiteko. 635706717.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Esperientzia nagusien zainketa. 600836168.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa-lanak egiteko. 617383494.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez nagusiak zaintzeko. 617571210.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. 613819233.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta hotelean lan egiteko. 624660035.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta emakumeak zaintzeko (titulu sozio-sanitarioarekin). Autorekin. 612223075.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 632642320.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 602012075.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak edo garbiketarako egiteko. 641739472.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak edo garbiketarako egiteko. 612294738.
- Neska eskaintzen da arratsaldez umeak zaintzeko. 649025614.

4.2. Langile bila

- Euskaraz dakien neska behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 699024156.
- Gizon nagusia zaintzeko pertsona behar dugu, etxean biziko dena. Zertifikatua egotea derrigorrezkoa da. 620888320.
- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. 661955980.

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

- Mekanizazio Erdi mailako Heziketa Zikloa egiten diharduen ikasleak irakasle partikularra behar du. 656702244. Rosi.

5.2. Eskaintzak

- Gitarra klase partikularrak ematen dizkiet etxean bertan 5-12 urte bitarteko haurrei. 688695814.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira: LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- LED lanpara, bonbilla eta aplikak saltzen ditut, denda itxi dudalako. 612223075.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Giltzak aurkitu dira Kalamua-ko puntan. Galdu zituena Udaltzaingora joan daiteke jasotzera.



osasun gida

Okulistak

 **Recalde**
 Clínica Oftalmológica
 Oftalmologi Klinika

•Kataraten eta presbiziaren kirurgian espezialistak.

R.P.S. 204/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak

 **ELENA AIZPUN**
PODOLOGOA

838200124
 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria, 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

Psikologoak

 **IRIGO UNANUE ARTECHE**
www.irigounanue.com

- Merkataritza Taldeetako Aholkulari Sistemikoa
- Gestalt Terapeuta / Coach Ontologikoa
- Bokazio Orientatzailea

Urkizu Pasealekua, 7
 672 682 133
info@irigounanue.com

Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa

 **Oscar Mondragon Lili**
 GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

Urkizu, 13 - behea
 Tel. 943206823 / 686859023

 **BIDEBARRIETA, 48**
EIBAR
 943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
 943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
 Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
 Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

 **PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
 Bidebarrieta, 27-B,1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

 **PODOLOGOA**

Maidier Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



943-206776



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Dokorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrigo Unibertsitate Konplutensea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Dokorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com